



2017 EKA: 14

OREXAKO UDALA

2017 EKA. - 6

Sarrera Zkia.

Irteera Zkia.

OREXAKO	CARRERA	IRTEERA
UDALA	Zk. 975744	Zk.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzako 4/1990 legearen 10. artikuluan jasota dagoena betetzeko asmoarekin, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolaketarako Artezbiddeen (LAA) aurrerapena Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL) bidali dio. Aipatutako aurrerapenei egokitzat jo daitezkeen ohar, proposamen, eta alternatibak egiteko.

Hortaz, EUDELeK aurrerapenaren testua helarazi die Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalei. Horren aurrean, hurrengo ohar eta proposamenak helarazten ditugu:

1/ Lurralde antolaketan garatutako politika, tresna eta egitasmoen diagnostikoaren beharra:

LAA berraztertzeke prozedura osoan zehar, eta aurrerapenean ere bai, Jaurlaritzak ontzat ematen du orain arte jarraitutako lurralde antolaketaren eredua. Ereduez ari garenean "hiriburuen gune anitzeko sistemaz" (Euskal Hiria) ari gara, helmuga lehiakorrekako lidergo papera ematen diena hiru hiriburuei. Polarizatutako bilgune hori orekatzeko, erdi mailako guneen artean sare bat sortzea proposatzen du. Baina, ez zaizkie Eremu Funtzionalei helburu hori lortzeko beharrezkoak liratekeen egitura organiko ezta erakunderik ematen.

Eredu horren ondorioak bistan dira:

- Garraio Azpiegiturei dagokienez, bide azkarrek hartzen dute protagonismoa, bai errepideak (autobideak), zein trenbideak (AHT) edota aireportuak; hau da, kanpora begirako loturak lehenesten dira, barnekoan kaltetan, eta guzti hori, aurretik mugikortasun eusgarriaren inguruan egin beharreko hausnarketarik egin gabe. Horri gehitu behar zaio, CO2 emisioen arloan, garraio arloan etengabe igo direla emisioak, hiper-mobilitatearen ondorioz.
- Landa eremuek balore estrategikoa jasotzen zuten LAA-etan, baina balore estrategikoa babesteko beharrezkoa zen Lurralde Antolaketako Zatikako Plana, onartutako azken plana. Dagoeneko estrategikoak ziren eremuak jarduera ekonomikoak, garraio azpiegiturak edota hiri-hazkundeak okupatu dituztenean. Horren ondorioz, 1987tik 2011ra Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan %75 handitu zen lurzoru artifizializatu kopurua (Espainiar estatu osoko bataz bestekoa %55 izan zenean); hau da, eguneko 2,02 hektarea. Urtean 700 futbol zelai.
- Azken urteetako erritmoak inoiz gure lurraldean eman den lurzoruaren okupaziorik handiena ekarri du. Honen atzetik, etxegintza burbuilak eztanda egin



OREXAKO
UDALA

arte puztu zuen hirigintza eredu hedakorra dago, gurean ere sekulako txikizioak eragin dituena eta oraindik orain eragiten dituena.

- o Europa mailan, biztanleko etxebizitza gehien eraikita duen lurraldea dugu; alegia 423 etxeb/1000 biztanleko. Etxebizitza parkea gaur egun 967.000koa da eta jadanik etxebizitzarako kalifikatutako lurzoruetan 198.000 etxe berri aurreikusten dira, horietatik 116.500 libre. Baina eredu horrek, etxebizitza eskubidea bermatzerako orduan, nabarmen da egin du porrot: 85.000 etxebizitza hutsik EAEn eta, aldi berean, 90.000 pertsona izena emanda Etxebiden, etxebizitza eskuratzeko eskubidea aldarrikatzen. Asko eraiki da, baina onura pribaturako eta ez kolektiboarentzako.
- o Erregai fosiletan oinarri duten energiaren dependentzia izugarria dugu Euskal Herrian. Alde horretatik, lurralde antolamenduaren politiketatik ez da sustatu bestelako energia berriztagarrien aldeko apusturik. Errepide eta autoen erabilpenean oinarritutako mugikortasun eredua nagusi da gurean eta horrek eragin nabarmenak ditu ingurumenean (bereziki negutegi-efektuko gasen sorreran). Esan gabe doa, energetikoki ere, horrek bere kostua duela; alegia, % 97ko menpekotasun maila energia arloan
- o Herriarren artean elikadurarekiko gero eta kontzientzia handiagoa dagoen honetan, kontsumitzen ditugun jakien % 5 baina gutxiago ekoizten dugu. Hartara, gure lurraldearen orografia malkartsua izanda, nekazaritzarako hoberenak diren lurzoruak hirigintza jarduketetarako erabiltzen ditugu. Nekazal jardueretan Europako daturik okerrenak ditugu: % 0,9 soilik ari baita sektore horretan jardunean.

Hainbat ondorio gehiago aipatu daitezke. Azken finean helarazi nahi duguna da, ereduak berak, Euskal Hiriaren lurralde egitasmoak ondorio larriak utzi dituela inguruan, giroan eta gure gizarte eremuan. Ez bakarrik LAAren garapenaren ondorioz; halaber, lurraldean praktikara eraman diren beste hainbat politiken ondorioz. Beraz, kontraste bat egin beharko litzateke; lurralde antolaketan, azken hogeitaz urteetan garatutako politiken, eta praktikara eramandako egitasmo eta horiek lurraldean eta gizartearen utzitako ondorioen artean. Kontraste horretarako, ezinbestekotzat jotzen dugu diagnosi parte hartzailearekin batera, LAA-ren berrazterketa prozesua ere egitea. Horregatik ari gara prozesu honen hasieratik diagnosis eskatzen. Jaurlaritzak aurrerapena argitaratu badu ere, ez du diagnosirik egin.

LAAen garapena eta horiek ekarri duten lurralde antolamendu eredua epaitzerako orduan, lurralde antolamendu horrek (orokortasunean aztertuta: LAA, Lurralde Plangintza Partzialak eta Sektorialak) azken urteetan izan duen



OREXAKO **UDALA**

portamoldearen oinarritzko azterketa bat egin beharko litzateke. Halaber, plangintza horien gauzatze eta zuzentasun gradua ikertu behar da.

Tamalez, Oinarritzko Txostenak ez du azterketa hori egin, Aurrerapenak ezta ere, eta arlo honen gainean egin dituen balorazioak ez dira nahiko. Besteak beste, azterketa sakona egitea ahalbidetzen ez duelako eta, ondorioz, ez delako posible lurraldeetatik datozen proposamenen (osotasunean hartuta) zuzentasuna, nahikotasuna eta zehaztasuna behar bezala neurtzea. Halaber, horrek ekiditen du orain arte metaturiko esperientziak profitatu eta etorkizuneko lurralde-antolamendu politika behar bezala garatzea.

Diagnosi hori ezinbestekoa da, kontuan hartzen badugu, lurralde antolamenduaren "bigarren belaunaldiak" finkatu behar dituen irizpideak zuzen zehazterako orduan daukan garrantzia. Aitzitik, egin ezean, tramite hutsean geratuko gara. Gure lurraldea antolatzeke funtsezkoa den tresna benetan berraztertu ordez, espedientea bete baizik ez genuke egingo.

2/ Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizea eta figura berriak.

"EAEko Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizeak", LAA-k ezartzen dituen antolamendu-kategoria bakoitzaren erabilaren erregulazioa biltzen du. Hau da lurzorua kategoriatik ezberdinetan sailkatzen du eta erabilaren arabera, erabilera horiek onartu edo ez edota babes neurriak ezartzen ditu. Gaur egungo matriza askoz zorrotzagoa izan beharko litzateke, 1 puntuan aipatutako lur-zoruen artifizializazio datuak oso argigarriak dira, bereziki galdu dugu nekazal lurzoruen arloan. Gainera, matrizeak babestuta dauden lurzoruetatik aparte (parke naturalak, biotopoak edo natura 2000 sareko guneak) gainerako lurzoruetan edozein jarduerak baimentzen duelako. Bereiziki aldarrikatu behar da erabilera gehiago debekatu behar direla, ez gaude 1998 urtean eta honezkero lurzoru baliagarri larregi galdu dugu.

Era horretan, LAA-en aurrerapenak ingurune fisikoan esparru edo termino berri bat ezartzen du, azpiegitura berdea. Aurrerapenaren arabera, azpiegitura berdeak lurzoru-erabilaren ikuspuntu integratua hartzea ahalbidetzen du, konektibitate globala hobetuz eta azpiegitura "grisek" sortutako zatikatzearen ondorioak arinduz, lurraldearen iragazkortasuna areagotuz, eta zona multifuntzionalak identifikatuz, zeinetan lurzoruen erabilera bateragarriak bultzatuko diren, ekosistema osasuntsu eta askotariko batzuk lortzeko lagungarriak. Lurzoruen erabilaren ikuspegi integratu horrek ekintza isolatu independenteek eskaini ahalko lituzketen onurak areagotzen ditu, ekintza horiek helburu berak izanda ere, eta lurralde erresilienteago



OREXAKO

UDALA

baterantz aurrera egitea ahalbidetzen du, espero ez diren gertaera naturalei aurre egiteko gai izango dena.

Ingurune fisikoa, babestutako gunetatik aparte babesteko oso figura interesgarria da azpiegitura berdeena. Garrantzi berezia hartzen du azpiegitura berdearen barruan korredore ekologikoen figura; EAEko habitat adierazgarrien eta lurralde osoa hartuta zatikatzerako sentsibleak diren habitatak, kontuan izanda habitat horiek lotutako espezie adierazgarriak hartzen dituztela. Gune-espazioek ingurune-balio handia dute espazioak hartzen dituzten, babes-figura bat dutela (beren ingurune-balioengatik babestutako espazioak) edo ez dutela (dokumentu honetan adierazitako interes naturala duten beste espazio batzuk). Dena dela, ezin da onartu, behin testuan garrantzia asko eman ondoren figura honi, natural gune babestuen arteko interkonexiorako ezinbestekoak direlako, gero, azpiegitura guztiak onartzea bertan edo hobe esanda, bat bera ere ez debekatzea. Adibide bezala, Urdaibai eta Urkiola ta Gobeialdea lotzen duten korredoreak, korredore horietatik, bereziki Zornotza eta lurretako lurretan, honezkero AHT, Euskotren, A-8, n-634, goi tentsioko linea... daude eta orain goi tentsioko bigarren linea bat egin nahi dute. Literaturan jartzen badugu korredore ekologikoak ezinbestekoak direla, babes ditzagun ere loteslea den dokumentazio grafikoan.

3/ Bizitegien kuantifikazioaren formula.

Eusko Legebiltzarrak, 2015eko martxoaren 12an egindako osoko bilkuran, erdibideko akordio bat onartu zuen Lurralde Antolaketako Gidalerroetan jasota dagoen bizitegien kuantifikazioaren aldaketa zela eta. Hain zuzen ere, onartutako testuaren hirugarren paragrafoa horrela esaten zuen:

“Sar dadila bizitegien kuantifikazioa aldatzeko eta proposamen horri loturiko formula, Jaurilaritza tramitatzen ari dena, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berraztertzeko lanen artean eta egin dezatela aldi berean Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak haiek onartzeko ezartzen duen tramitea.”

Era horretan argi geratzen zen, legebiltzarraren gehiengoaren asmoa zela, Lurralde Antolaketako Gidalerroen edozein aldaketa, gaur egun aipatutako gidalerroak aldatzeko zabalik dagoen berrazterketa prozeduraren barnean egin behar zela.

Gauzak horrela, otsailaren 8an, Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan 4/2016 Dekretua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten zituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.



OREXAKO

UDALA

Horren ondoren, hainbat eragile sozial, politiko eta instituzionalek egindako aldaketaren kontrako iritzia plazaratu zuten. Besteak beste, ohiko bizitegien behar izanak murriztea, familien batz besteko tamainaren urteko aldaketa iraunkorra, malgutasun koefizienteak eta bizitegi kopuru minimoaren beharrak ezabatzea eskatzen zuten. Orain, LAA-en aurrerapenean, berriro ere, bizitegi kuantifikazioaren formula aldatzea proposatzen da, baina aldaketa hori soilik gauzatuko da berrazterketa prozedura bere osotasunean bukatzen denean. Uste dugu beharrezkoa dela, berrazterketa prozedura bukatzen den bitartean, bizitegi kuantifikazioaren formula aldatzea, gutxienez, etxebizitza kopuru minimoaren beharra ezabatuz.

4/ LAA-ren berrazterketa eta indarrean dagoen marko arautzailea, bereziki 4/1990 legea.

Oinarrizko Txostena eta aurrerapenaren proposamen batzuk indarrean dagoen Lurralde Antolamenduaren Legean txertatzeko arazoak izan ditzakete eta, agidanez, aldatu egin beharko dira.

Oinarrizko txostena bera eta bere onarpena prozesu parte hartzaile batekin lotzea ez dago aipaturiko Legean jasota.

Adibidez, hurrengo arloetan finkatu diren hainbat helburu eta argibideetan: korridore ekologikoak; hiri-birgaikuntza eta -berriztapena (proposatzen den moduan); Gune Metropolitanoak eta Eraldaketaren Ardatzak; Hiri Hazkundearen Perimetroa, eta abar. Horiek guztiak ez daude Legean behar bezala islatuak.

Horretaz landa, LAA-en berrazterketa prozesua abian jartze hutsak eta antolamendu ereduak izan dituen gabeziak agerian uzteak, nahitaez, azken 26 urteetan arloa arautu duen lege markoaren egokitasuna eztabaidatzea ekarri beharko luke.

5/ Marko orokorra aldatzen den bitartean, bertan bera utzi aldaketa partzialak.

Bukatzeko, LAA-en berrazterketa egiten den bitartean ez lirateke berraztertu edo onartu behar LZP (lurralde zatikako planak). Marko orokorra hausnartzen gaudenean ez dauka zentzurik eskualdetako irizpideak berraztertzea. Beraz, Moratoria bat beharrezkoa da, ildo nagusiak definitzen diren bitartean, bestela, zatikako planen bitartez iraunkortu daiteke laster aldatuko dan lurralde antolaketarako ereduak. Eta LAPen (Lurralde Arlokako Planak) kasuan antzerako, soilik, ingurua babesteko moldaketaren bat beharrezkoa bada onartuz edo jarduera ekonomikoen LAP-en birmoldaketa adibidez, hau da, sententzia batek, merkatalgune handien ezarpena



OREXAKO
UDALA

mugatzeko ezarritako m2 bertan bera utzi dituelako. Sententzia horrek jarraitu beharreko bidea ezarri zuen. Izan ere, esaten zuen, mugapen hori ezin zela egin arrazoi ekonomikoak jarraituz (LAPak egiten zuen bezala), lurralde antolaketakoak, ingurumenekoak eta irizpide sozialak erabiliz baizik. Beraz, sententzia batek agintzen duelako edo egoera sozio-ekonomikoak derrigortzen duelako zatikako eta arlokako planak, LAA-k aldatzen diren bitartean ez lirateke aldatu behar.

Orexan, 2017ko ekainaren 6an.

ALKATEAK

Izpta: Eneko Maioz Ganboa

